

## Nor nori nork

Gure amak beti esaten zigun erabili ezean, euskara hil egingo zela. Gure belaunaldikoek gure gain sentitu dugu euskararen biziraupenaren ardura, hala erakutsi zigutelako. Aurrekoan Jon Maiak "Kantu bat gara" ikuskizun ederra eskaini zuen Gasteizen. Bertan Arabari merezitako omenaldia egin zion eta gogoratu zuen azken hamarkadetan euskara ez dela inon Araban beste hazi. Berotasun berezi bat sentitu genuen han izan ginen guztiok eta esango nuke bereziki hunkitu zirela zailtasun guztien gainetik aspaldi euskara ikasi zuten arabarrek. Eta honek pentsarazi dit duela berrogei urte euskara ikasi zutenen eta gaur egun euskara ikasten ari direnen artean dagoen diferentziaz. Esango nuke gaur egun euskara bere testuinguru soziologiko-politiko-historikorik gabe irakasten dela kasu askotan, hizkuntza normalizatu bat izango balitz bezala. Eta modaz kanpo dagoen zerbait esango dut, baina iruditzen zait hain egoera zaurgarrian dagoen hizkuntza bat ezin dela irakatsi haren biziraupenerako beharrezkoa den militantzia eta ahalegin berezi baten beharra transmititu gabe. Hizkuntza irakastearekin batera, irakatsi behar da euskara ez dela ingelesa, ez dela espainola, ez dela frantsesa; nahiko genukeela haien egoera guretzat, baina ez, erabili ezean, euskara galdu egingo dugun hizkuntza bat dela gogorarazi behar da etengabe, guri txikitatik transmititu ziguten bezala. Gaur egun euskararen hazkundera gazteen euskalduntzetik dator batez ere: egungo euskal hitzun gehienak, familiaren bidez baino gehiago, hezkuntza sistemaren bidez edota euskaltegien bidez jasotzen ari dira euskara. Baina ez dugu ahaztu behar hizkuntza irakastearekin ez dela nahikoa: euskararen ibilbidea ezagutu behar dugu euskararen erabilerak duen balioaz ohar gaitezen. Gure ahotsik gabe euskararen kantua desagertuko dela behin eta berriz gogoraraztea beharrezkoa da. Euskara ez dela soilik nor nori nork.

Karmele Jaio, *Diario de Noticias Álava*, 2025/01/04

**GALDERAK** (OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

A1. ATALA: IDATZIZKO ULERMENA ETA EKOIZPENA

A1.1 Testu iruzkina: testu **tipo eta mota**: bereizgarriak (150 hitz inguru) (2 puntu)

A1.2 Iruzkin kritikoa: egin ezazu gaiari buruzko **iruzkin kritikoa** (150 hitz gutxienez) (2 puntu)

A2. ATALA: HIZKUNTZA ETA GIZARTEA

A2.1 Gramatika: (proposaturiko **bi ariketetatik BAT egin behar da**) (1,5 puntu)

A2.1.1 Eman testuko hitz hauen kasua eta numeroa, eta zehaztu falta diren numeroak: **amak** (1), **hamarkadetan** (4), **txikitatik** (15), **euskaltegien** (17), **balioaz** (19)

A2.1.2 Eman testuko adizki hauen aspektua, aldia, pertsona eta modua: **esango nuke** (5), **izango balitz** (10), **dator** (16), **jasotzen ari dira** (18), **ohar gaitezen** (19-20)

A2.2 Soziolinguistika edo euskalkiak (proposaturiko **bi ariketetatik BAT egin behar da**)  
(1,5 puntu)

A2.2.1 Soziolinguistika: aztertu ondoko testua. Soziolinguistika arloko 10 kontzeptu baliagarri proposatuko zaizkizu. Horietatik, **aukeratu 3, eta egin haien gaineko hausnarketa**. Aukeraturiko **3 kontzeptuak testuan azpimarratu** behar dituzu. (50-100 hitz) (1,5 puntu)

- |                             |                           |
|-----------------------------|---------------------------|
| 1. Diglosia                 | 6. Hizkuntzaren hautaketa |
| 2. Hizkuntza-gatazka        | 7. Elebitasuna            |
| 3. Hizkuntza-normalizazioa  | 8. Hizkuntza-eskubideak   |
| 4. Hizkuntza menderatzailea | 9. Hizkuntza-politika     |
| 5. Hizkuntza gutxitua       | 10. Balio instrumentala   |

**Euskararen ofizialtasuna Nafarroa osora hedatzeko eskatu du Behatokiak**

Foru Hobekuntzaren lantaldean, zonifikazioak dakartzan «ondorio, oztopo eta mugak» azaldu ditu Agurne Gaubeka Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendariak. Euskararen ofizialtasuna lurralde osora hedatu dadin galdegin die parlamentariei.

A2.2.2 Euskalkiak: aztertu testu hau, eta esan **zein euskalkiri dagokion**. **Identifikatu** euskalki horretako **4 ezaugarri, deskribatu** ezaugarri horien berezitasunak, eta **adierazi zer esan nahi duten**. (50-100 hitz inguru) (1,5 puntu)

**‘Eingule?’ leiaketea jaietan**

Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak ospatuko dabes laster. Jaiok girotzeko, Eingule? leiaketea atondu dabe. Gasteen parte-artzea sustatu guran, Udalak eta Txosna batzordeak txosnagunea edegitten dan egunerako, irailaren 6rako, leiaketea prestau dabe.

Leiaketearen elburua bertoko iskerea, identitatea eta kulturea edatzea da, eta errittarrei nortasuna emoten deutzen iskereak egunerokorako daukan balioa agirian ixtea. Orretarako, errian erabilten diran berba errasak berreskuratu gura dabes.

Eingule? leiaketan parte-artzea errittar gustiei edegitta dago; banaka, bikoteka edo taldeka parte hartu daitteke eta telefono bides olgau beharko da.

Parte-hartzailleek 24 galdera erras erantzun beharko dittue, eta puntuasiño altuena lortzen daben leenengo iru parte-artzailleek irabasiko dittue sariak: erriko denda baten gastetako 60, 100 eta 150 euroko txartelak (2025/09/04).

A3. ATALA: LITERATURA

A3.1 Literatura (proposaturiko bi ariketetatik **BAT** egin: **A3.1.1 edo A3.1.2**) (3 puntu)

A3.1.1 Irakurri ondoko pasartea, eta egin **iruzkin** bat **hiru galdera hauek erantzunez**: (120-180 hitz)

1. Identifikatu **autorea** eta **obra**, eta kokatu **garaiko testuinguruan**.
2. Identifikatu **narratzailea** eta **pertsonaiak**, eta **lotu pasartearekin**.
3. Esan eta **argudiatu**, **testuari erreferentziak eginez**, zer **gai** jorratzen den pasarte honetan, eta azaldu nola lantzen den **gaia liburuan**.

Somorrostrora joan gintezke lenbizi.

Bizkaira esatera ninjoan, baño damutu egin zait; bada Bilbotik itxasoruntz goazela ezker aldetik dauden erriak etziruditen Bizkaikoak. Toki aietan Bizkai barrutik agiri dan zeru garbirik ezta ikusten; Gernika, Durango ta Markiñako ibarretan daukagun pake ta txukuntasunik ezta billatzen; etxeko izkuntza maitearen durundi gozoric ezta iñon sumatzen.

Nerbion ibai zabala, ibai ospetsua, Euskalerriko ibai guztien ibaia da, denok dakigu. Bere gañean daukazki, Bilbotik asi ta Portugaleteraño, erridi askotako itxasontzi sendoak; [...] eta batez ere burni oien sorrerako labe goriak, berebiziko lantegirik andienak, sua ta garra, autsa ta ke lodia borborrean zerua illuntzeraño jaurtigiaz; antxen dakusgu jantzi loi, izerdi usai ta begirune gaiztoko langille zikin zetakaz beteak eta bertan entzun litezke uri andi baten indar, almen ta bizitza erakusten duten gizadi marmarretak, malluen danbatekoak, itxasontzien turruntak, tximist-gurdien txintxiñak eta sugurdi azkarren tipirri taparra luze adoretsuak.

Nerbion inguruari Euskalerriko alderdia baño Londresko auzotegia obeto deritzat.

A3.1.2 Irakurri ondoko pasartea, eta egin **iruzkin** bat **hiru galdera hauek erantzunez**: (120-180 hitz)

1. Identifikatu **autorea** eta obra, eta kokatu **pasartea obraren testuinguruan**.
2. Identifikatu **narratzailea** eta **pertsonaiak**, eta **lotu pasartearekin**.
3. Esan eta **argudiatu**, **testuari erreferentziak eginez**, zer **gai** jorratzen den pasarte honetan, eta azaldu nola lantzen den **gaia liburuan**.

—Etxera esan diat, Daniel!

—Ez! —eta klariona bota zuen lurrera.

—Daniel! Obeditu egiozu zure anaiari! —esan zuen jostun maistrak, eta beste besotik heldu zion.

—Barka ezazu —xuxurlatu zion Paulok andreari—. Azken aldi honetan zerbait gertatzen zaio. Ez dago ondo.

—Utzi! —egin zuen Paulok garrasi.

Garrasi eginez besoak libratu zituen, zakarki, eta eusten zienei bultza eginez. Bultzada hura ezin makalduz, emakumea atzeraka joan zen. Ahots itsusiko neska hark heldu ziolako ez zen erori.

Jostun maistraren zain ttikiak zurixkak ziren orain. Zerbait esatera abiatu zen, baina ahots itsusiko neskak aurea hartu zion.

—Ez dakizue mutil gaixoa tratatzen! Eta hik gutxiena, Paulo!

Ez hadi ikaratu, Paulo —pentsatu nuen.

—Daniel! —hasi zen barre itsusiko neska goxo—, ez al duk Teresarekin eta nirekin paseatu nahi?

—Teresarekin, bai —eta zipriztinak atera zitzaizkion ezpain artetik.